

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 246. zkia. 2016ko ekaina



XIII. Biharko Izarrak txapelketak baditu garaileak



IRAZABAL
clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobek. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara



GASCA
gourmet

Etxez-etxeko zerbitzua
Menu osasuntsuak
Aukera zabala



Menu osoa 6,29€tik hasita

Probatu orain 1,80€tan

*Jaso zure etxean zure
beharrei egokitutako menuak*

Informazio gehiago:
946 420 420
gourmet@grupogasca.com
www.gascagourmet.com



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Biharko Izarrak.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Juanxo Diez, Patxi López,
Valentin Mugarza, Hiart
Redondo eta Iker Vaquero.

ARGAZKIAK:

Amaia Arginzoniz, APFE,
Ramón Beitia, Paul Bustindui,
Juanxo Diez, Estibalitz
González, Asier Ibaibarriaga,
Biharko Izarrak, Mallabiko
Eskola, Txemi Mantecón,
Valentin Mugarza, Laura
Prieto, Hiart Redondo,
Ermuko Udala, Iker Vaquero
eta Dorleta Vidal .

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserritarren ahotik

KIRIKIÑO Erizo *Erinaceus europaeus*

Lekuan-lekuko izen ugari ditu: kirikixua edo kirikixue, kirikolatza, sagarroi, trikua... Hainbat izen, baina animalia ezta kadun bera; 6.000tik gorako txerto zorrotz horiek, pilota bat eginez, ederto batzen dute bere gorputza arrisku txikiena sumatu orduko. Norberaren burua babesteko ez da armadura eraginkorragorik asmatu: txakurrak edo azeriak nekez egin ahal diote aginka, sabelaz gora topatu ezean. Orduan bai, tripapean eztakarrik ez izatean, errazago hartzen dute mende.

Ibilera zor eta narrasekoa, hanka txikitxoak ditu eta gaez egiten ditu bere joan-etorriak. Muturra eta ahoa bakarrik erabiltzen ditu ehizarako eta lurretik altxatu ezin diren animaliak sailean garbitzen ditu: zizare, armiarma, beldar, bare eta abarrok txarto behar dute harekin topo egin ezker!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4	BOTEPRONTOAN16
Iker Vaquero (Erresuma Batua)	Jose "Che" Suárez
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE17
Lobiano Gastronomía Elkarte	Laura Prieto futbolaria
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA18
Biharko Izarrak arrakastatsua	Ongi etorri errefuxiatuak
MOTZEAN10	SALEROSKETAK19
Anne Erauskin saritua	Saldu, erosi edo agurtu
ESKOLEN TXOKOA.....11	ANTZINAKOAK.....20
Mallabiko Eskolako berriak	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERREPORTAJEA12-13	KALEKO INKESTA21
Ermuan Bagarako argazkiak	Seguruak dira gazteen lokalak?
ERMUAN ZER.....14	AGENDA22
Festan Blai ekimena	Uztaileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Iker Vaquero

Euskal Herrian Biologia ikasi eta 2001 ean Madrilera joan zen, Zoologia espezialitatea Complutensean ikastera. 2008an, 28 urterekin, Erresuma Batuko University of Exeterrera joan zen doktoretza egitera eta, Falmouthen urte batzuk egin eta gero, Lincoln hirian bizi da egun.

- Erabaki erraza izan zen etxetik alde egitea?

Ez, Madrilera joatea ez zen batere erraza izan. Familia, lagunak, ohiturak eta ezagutzen nuen giroa alde batera utzi eta ezezaguna, berria eta beldur pixka bat ematen zidanari aurre egin behar izan nion. Gero, Erresuma Batua joatea ere zaila izan zen, baina lehen baino errazagoa, beldurra galduta neukalako jadanik. Hala eta guztiz ere, atzera begiratzean, erabaki egokia hartu nuela uste dut.

- Zer topatu duzu Madrilen eta Erresuma Batuan?

Madrilen jende adiskidetsu, lagungarri eta alaia topatu nuen, harroputzagokak izango zirela uste nuen. Neskekin ligatzea ere Euskal Herrian baino askoz errazagoa da, zorionez! Bestalde, Cornwallen ere izugarriko lagunak egin ditut, eguraldia uste bezain txarra da, eta janaria orokorrean ere bai.

- Zerk harritu zaitu gehien?

Eguraldiak, izugarri txarra delako. Itsasoak inguratzen du Cornwall, beraz, zirimiria eta haize-bolada handiak dau-



de beti. Harremanek ere harritu ninduten, baina uste dut Cornwall salbuespena dela: Erresuma Batuko hoztasuna herri txiki bateko hurbiltasunarekin nahasten delako bertan.

- Hizkuntza menderatzen zenuen Erresuma Batua joan baino lehen?

Urte asko ikasten eman eta gero, maila teoriko ona nuen, baina ulermenean hankamotz nenbilen. Izaera aldatu zitzaidan: bat-batean lotsati bihurtu nintzen, besteek ulertzea pila bat kostatzen zitzaidalako. Sei hilabete kostatu zitzaidan berriro ni izatea, lasaitasunez hitz egitea eta gozatzen hastea.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Espainiatik, janaria. Etxera bueltatzen naizenean, Madrilgo eltzekoa egiten dit amak, bakailoa pil-pilean eta maitatzen ditudan janari asko. Euskal Herriatik mendiak botatzen ditut faltan: Ingalaterra oso laua da! Ezin zara etxe-

tik irten eta Urkora igo, eta asko estimatzen nuen hori txikitari.

- Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Unibertsitatara noa egunero, eta doktoratu ondoko ikertzaile bezala jarduten dut, animalien portaera eta eboluzioa aztertzen. Aisialdian, lagunekin egoten naiz: pintak edan, musika zuzenean entzun, zinemara joan, zelaietan ibili... edo norbaiten etxean elkartu, janaria prestatu eta pelikulak ikusten ditugu. Bakarrik nagoenean, gitarra eta kaxoi flamenkoa jotzen dut (noizean behin pub batean jotzen dut, jendaurrean). Irakurtzea eta idaztea ere gustuko ditut. Orokorrean gustura nago.

- Hona bueltatuko zarela uste duzu?

Nekez. Espainiara baliteke, baina Euskal Herrira bueltatzea zaila da, eta are zailagoa Ermura, nire arloko lana dagoen tokietan egon behar baitut.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Lobiano Gastronomía Elkarteak:

**“Kide gehiago izango bagenitu,
hamaika proiektu egingo genituzke”**

2000. urtean jaio zen Lobiano Gastronomía Elkartea, herriko bospasei lagunez osatuta. Gaur egun Vicente Galán, Jesús Portugal, Jose Egido, Txemi Mantecón eta Benito Betegón ermuarrek osatzen dute taldea, eta eurak dira ospatu berri den pintxo aste arrakastatsuen antolatzaileak. Emaitzarekin pozik dauden arren, laguntzaile gehiago lortu nahiko lituzkete, lanez gainezka daudelako. Gastronomiaz modu zabalean gozatu eta herriaren alde lan egiteko aukera paregabea eskaintzen dute.

Elkartezketa

- Zein da zuen elkartearen helburua?

Gastronomiarekin lotura duten ekimenen bitartez, herrian jarduerak bultzatzea dugu helburu. Hau da, herriko kontsumoa sustatzea. Era berean, elkartasuna lantzen dugu, eta esparru horretan kokatzen da ekai-nean burutzen dugun paella erraldoia, esaterako.

- Zenbat ekimen burutzen dituzue urtean zehar?

Urteari kazolatxo lehiaketarekin ekiten diogu, otsailan. Neguan ez da ia ekimenik antolatzen eta kazolatxoen kontua bururatu zitzaigun. Aurtengoa 6. edizioa izan da, eta badirudi gero eta indar gehiago hartzen doala. Ekai-nean, aldiz, pintxoaren astea antolatzen dugu, eta hau da gure ekimenik jendetsuena. Horren inguruan jarduera ugari burutzen ditugu: umeentzako tailerrak (pizzak egiten ikasteko, gozokiak, patata frijituen dastaketa...), hitzaldiak, kultura eta gastronomia uztartzen dituzten erakustaldiak, dastaketa-afaria, azoka, aurten *food truck* kontzentrazioa, elkartasun paella, bakailao lehiaketa... Irailean, gainera, txangoa egiten dugu lehiaketara aurkezten diren guztiekin. Azkenik, Santixauetan paella lehiaketa kudeatzeaz arduratzen gara eta herriko beste elkarte-



kin kolaborazioak egiten ditugu urtean zehar.

- Zein finantzabide dituzue?

Herriko beste kolektiboek bezala, Udalaren diru-laguntza jasotzen dugu, zenbait gasturi aurre egiteko. Baina gehienetan dirua galtzen dugu, gure poltsikotik ipini behar dugu. Adibidez, paella-ontzi erraldoiaren bila Beasainera joateko pertsona batek goiz bat eman behar du, kamioi bat lortu, gasolina... Eta paella-ontziaren jabea konbentzitu behar duzu, ontzia musu-truk lagatzeko!

- Jendeak ondo erantzuten die horrelako eskaerei?

Orokorrean bai, ez gara kexatzen, nahiz eta garai txarrak diren faboreak eskatzeko.

- Zenbat denbora behar duzue pintxo astea antolatzeko?

Urtarrilean hasten gara bilerak egiten. Aurten ez dugu azokarik egin, baina horrek denbora asko eskatzen zuen, erakusleei banan-banan deitu behar genielako, euren produktua debalde emateko konbentzitu... Aldi berean, gure diru-iturri zen azoka hura, edalontzia saltzen genuelako. Aurten ez daukagu horrelakorik, beraz, gaizki pasatuko dugu.

- Zenbat pintxo saltzen dituzte tabernariak pintxo astean?

Iaz, adibidez, 25.000 pintxo saldu ziren, eta horiekin batera, 25.000 trago inguru salduko zituzten, jakina. Baina horrez gain, dibertsifikazioa lortzen da: normalean bisitatzen ez dituen tabernetara joaten delako jendea. Gustatuz gero, batek daki, ohiko bezero bihurtu daitezke.

- Zuen lanari esker tabernariak bete egiten dira. Tabernariak pozik egongo dira zuekin...

Oro har bai, baina batzuk kritikatu egiten gaituzte. *Food truck*en kontua, esaterako, batzuei ez zaie gustatu, bezeroak kenduko dizkiela esaten dutelako. Ez dira konturatzen horrek kanpoko jendea ere erakarriko duela.

- Zer nolako harremana duzue tabernariarekin?

Bada, elkartearen lanari etekin ekonomikoa ateratzen diote, eta hori ona da. Gu horren aldekoak gara, noski. Baina uste dugu horri buelta bat eman behar diogula, gurekin inplikatzeko eskatu behar diegula: elkartu, hitz egin, guztion artean zerbait prestatu...

- Beste herri batzuetan ere hau bezalako ekimenak daude?

Gurea bezalako pintxo astete gutxi daude, eta hura saltzen jakin behar dugu: Bil-

“Tabernari gehienak pozik daude gurekin, baina batzuk kritikatu egiten gaituzte”






ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

bon egingo balitz, sekulako oihartzuna izango luke; Ermuan egiten bada ere, goazen bultzatzera! Goazen Ermua izena zabaltzera! Guztiok irabaziko dugu!

- Bistakoa da herritarrek ere ondo erantzuten dutela...

Bai, izugarri ondo. Hasi ginenean ez genuen uste pintxo asteak horrenbesteko arrakasta izango zuenik.

- Eta uste duzue pintxoak jaten dituztenek zuen lanaren berri dutela?

Ez. Tabernariak bai, ezagutzen gaituztelako, baina herriak orokorrean ez. Ez dakite nork antolatzen duen ekintza hau, Udalak egiten duela pentsatzen dute askok, eta ez dauka zerikusirik. Baina ez zaigu inporta. Ez gaude hemen gure burua ezagutzera emateko, baizik eta gure lana egiteko. Facebooka dugu eta gure webguru-

nea berritzen ari gara orain. Jarraitzaile asko ditugu, baina hori ez da gure helburua.

- Jarraitzaile bila baino, laguntzaile bila zabiltzate, ezta?

Bai, gehiago izango bagina (10 lagun, esaterako), buruan ditugun hamaika kontu egin ahal izango genituzke: lanak banatu, esparru ezberdinetan erreferente bat izendatu... Baina gaur egun guztiok arduratu behar gara guztiaz, gure lanorduetatik kanpo, eta nekagarria da.

- Zein proiektu dituzue orain esku artean?

Gauza guztiak berraztertu nahiko genituzke: funtzionatzen duten ekitaldiak indartu eta berriak proposatu, baina horretarako ezinbestekoa dugu jendearen inplikazioa.

- Zer eskaintzen duzue trukean?

“Jendeak ez gaitu ezagutzen, ez daki zenbat ekimen antolatzen ditugun”

Ezer ez, kar kar! Datorrenak denbora galduko du eta momenturen batean dirua ere ziur aski. Baina herriaren alde zerbait egiteko aukera dugu, eta horrek asko asebetetzen du. Zerbait antolatu eta plaza eta tabernak jendez lepo daudela ikusteak ez dauka parekorik! Gainera asko ikasten da sukaldaritzaz, ardoaz, lehen mailako sukaldariek hitz egiteko aukera duzu...

- Laguntzaile puntualak lortzea erraza da?

Bai, paella egunean norbanakoak izaten ditugu eta merkatari eta ostalariek ere laguntzen digute paella egi-

ten eta banatzen. Baina guzti hori jaso eta garbitu egin behar da, eta dena musu-truk, jasotzen den diru guztia egoera latzean dauden ermuarrei bideratzen diegulako.

- Zerk batzen zaituzte elkarteko kideak?

Ezerk. Lagunak garela eta gastronomia gustatzen zaigula. Jateaz gain, produktua dastatu, munduko sukaldaritzaz ezberdinak ezagutu, dastaketak egin (ura, gatza, txokolatea...). Bakoitza bere bizitza du, baina elkarrekin primeran pasatzen dugu!

Dorleta Vidal




AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



aral97.com
aral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

aral@aral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



CAPRI

PIZZERIA
943 03 33 15

Ugalde eta Martinez bikotea nagusi Biharko Izarrak txapelketan

Lau t'erdiko txapelketan Jon Alberdik 22-14 irabazi dio Enaitz Antsori. Binakako mailan, Andoni Ugaldek eta Iñigo Martinezek 22-11 garaitu dituzte Peru Labaka eta Joseba Sarasa.

Ekainaren 10ean ospatu ziren Biharko Izarrak txapelketaren XIII. edizioko finalak Mallabiko pilotalekuan. Aurreneko partiduan, lau t'erdian, maila handiko pilota partidua bete zuten Alberdi eta Antso pilotari gazteek. Alberdi sendoago aritu zen partidu osoan zehar, pilotari indartsua dela erakutsiz. Errematean ere maila aparta erakutsi zuen. Antsok, partida polita bete zuen, bai-

na indarrez justuago heldu zen azken txanpara, eta amore eman behar izan zuen azkenean.

Ezker dotorea

Binakako mailan, Andoni Ugalde gipuzkoarrak Bera Bidasoako Iñigo Martinez izan zuen atzelari, eta biak faborito ziren txapela jartzeko. Beraien arerioak, Peru Labaka zizurkildarra eta Joseba Sarasa uharterra izan ziren. Sarasa esku min arazoekin heldu zen



final handira, eta horrek erabat baldintzatu zuen partidua. Martinezek ezker dotore bat erakutsi zuen, eta atzealdean erraz nagusitu zitzaion Sarasari. Eibarko San Juanetan Asegarce enpresarekin debuta egingo duen Andoni Ugaldek bere dohainen zertzelada batzuk erakusteko aukera izan zuen. Partidua oso pareko joan zen erdi lanetan, 13-9. Faboritoak aurretik ziren arren, Peru Labaka gogotsu ari zen aurreko koadroetan. Alde batetik bestera ibiltzea egokitu zitzaion eta nahi baino gehiagotan pilota lautik atzera jo beharrean izan zen Sarasari laguntzeko.

Finaleko onena izan bazen ere, Sarasak pilota ugari galdu zituen atzealdean, eta horrek finala gorrien alde bideratu zuen. Partidaren bigarren zatian Ugalde finago ibili zen, eta 22 tantora iritsi zen Martinezen lan apartari esker. Azken hori txapelketako pilotari onena izendatu zuten, eta Labakak kiroltasunaren saria jaso zuen. Hamahirugarren urtez, antolatzaileek posible egin dute afizionatu mailako txapelketa garrantzitsua aurrera ateratzea, eta pilotari, babesle eta jarraitzaileei esker onak eman nahi dizkiete.

Paul Bustindui



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Montis **DQ**
Mouth

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA



Goienkale beheka, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

“EZAGUTU ETA BIZI DURANGALDEA” APLIKAZIOA

Telefono mugikor eta tabletetarako egokituta dagoen aplikazioa da “Ezagutu eta Bizi Durangaldea”. Eskualdeko herrien kultur informazioa jasotzen duen baliabide hau martxan jarzeko proiektua abian da. Batzarra maiatzaren 26an Kontzejuzarrean izan zen, eta bertan lortutako aurrerapenekin, eta Mallabiko planarekin, laster sakeleko telefonoetan eta tabletetan deskargatzeko aukera egongo da. Durangaldeara datorren turistari begira ez ezik, eskualdeko biztanleei erabilgarri egingo zaien aplikazioa izateko jaio da

NEKAZARI ETA ARTISAUTZA AZOKA

Pasa den ekainaren 5ean ospatu zen Mallabiko nekazari eta artisautza azoka herriko frontoian. Abere erakusketarekin batera ekin zion aurtengo ekitaldiak eta Gazte Alai dantza taldeak girotu zuen goiza. Mallabiko zuhaitzen erakusketa, Mallabiko musikarien bilduma eta Nahikariren txokoa egon ziren ikusgai eta Adolfo Jainagak omenaldia jaso zuen. Bizkaiko Diabetes Cero Elkartearen ere izan zen bertan gaitza duten umeen kasuak azalduz.



IZARO ANDRESEN DISKOAREN PROIEKTUA AURRERA DOA



Azken boladan gero eta ohikoagoa den *crowdfunding* bidezko finantziarioa aukeratu zuen Iزارo Andres abeslari mallabitarrek bere musika diskoaren proiektua aurrera ateratzeko. Diskoa 12 +1 kantuk osatuko dute: sei euskaraz, hiru gaztelaniaz eta hiru ingelesez. Internet bitartez, edonork diru ekarpen ezberdinak egin ditzake pack diferenteak erosiz. Bost eurotik hasita, disko digitala, disko fisikoa, kontzertuetarako sarrerak, kontzertu pribatua eta errefuxiatuentzako dirulaguntzak eman daitezke. 3.443 euroko minimoa behin gaindituta, dagoeneko 4.300 euro lortu ditu Izarok jendearen erantzun apartaz. Oraindik ere tarte dago proiektua sustatzeko <https://eu.goteo.org/project/izaro> atarian. Proiektua 2015ean hasi zen bere lehen abestiarekin: *Paradise*. Ikustaldi asko izan zituen YouTubean eta, geroago, Donostiako Zinemaldian parte hartu zuen *Pikadero* filmeko soinu bandarako aukeratu izan zen.



Udal Euskaltegia
 Teresa Murga Eraikina
 Goienkale z/g 2. solairua
 ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



SEHIGA
 PROTECCION LABORAL
 Y AN BABESERAKO
 ORINDURA
 Goienkale kalea (Ermua)
 Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



Mallabiko
HERRIKO
 tabernak
ZERBITZARIA
 behar du
 asteburuetarako
625 70 14 60

Iberikoetan
 espezialistak


 Denda
 berria
 VI Centenario 5 · ERMUA
 943 172 412

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
 Lege eta
 kontu aholkularitza
 Izarra Centre eraikina
 Tel: 846080080
 Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com





 San Pelaio 4A behea
 Telefonoa: 17 64 77
 ERMUA

**AITOR HERNÁNDEZ,
BTTKO BIZKAIKO
TXAPELDUNA**

Ekainaren 5ean Bizkaiko txapela lortu zuen txirrindulari ermuarrak *cross country* modalitatean. Getxon burututako lasterketa hau Euskadiko Openerako puntuagarria da eta, garaipen horri esker, Specialized-Ermua Impulso taldekoak denboraldiko bigarren titulua eskuratu du.

**31.000 EURO BANATUKO
DITU DEBEGESAK
EKINTZAILEEN ARTEAN**

Lanbidek ekintzaileei laguntzeko 2016ko diru-laguntza deialdia abian jarri du, enpresa-idea bat garatu edo enpresa-proiektu berria martxan jarri nahi dutenentzat. Debabarrenean, Debegesa garapen agentziaren bitartez egin ahal izango dute eskaera ekintzaileek. Interesa dutenek 943 82 01 10 telefonora deitu beharko dute ekainaren 22a baino lehen.

**ESKOLA JASANGARRIA
ZIURTAGIRIA JASO DU
ESKOLABARRIK**

Eskolabarrri HLHIPko ikasle eta irakasleek Eskola Jasangarriaren ziurtagiria jaso berri dute Lehendakariaren eskutik. "Eskola jasangarriaren ebaluazioaren prozesua aztertu ondoren, eta auditoria-bisita egin eta gero, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, eta Ingurugelak txalotu egiten dute egin dugun lana —diote eskolatik—. Aldi berean, eskertu digute izan dugun interesa, horrek adierazten baititu urtez urteko hobekuntzarako inplikazioa eta jasangarritasunarekiko konpromisoa".

**Anne Erauskinek Eskubaloiko Bizkaiko
Federazioko saria jaso du**

Errotabarri Eskubaloi Taldeko jokalaria den Anne Erauskin ermuarrak "2015-2016 Denboraldiko kirolari onenaren saria" titulua eskuratu du. Ekainaren 17an jaso zuen saria, Bilbon ospatu zen Bizkaiko Eskubaloien galan. Horrez gain, Estatuko Selekzioan jokatzeke hautatu dute, jubenilen kategorian, eta haiekin hainbat partida jokatuko ditu: Uztailaren 4tik 8ra Europako Open txapelketa jokatuko du Suedian eta 15ean lagunarteko bi partida Kroazian. Handik Eslovakiara joango dira, bertan burutuko baita IHFko Munduko txapelketa. Errotabarriko Ane Encina ere Selekzioarekin arituko da junior kategorian, eta Munduko Txapelketan hartuko du parte Errusian, uztailaren 1etik aurrera.

**Sagarrak eta Murrukak irabazi dituzte
APFEko txapelketak**

Sagarra CFk irabazi du 2015-2016 denboraldiko liga. Bestalde, Murruga Ventanas Rada FTK Kopako titulua lortu du. Sagarrako Alex Quindosek goleatzailearen saria jaso du (25 gol 16 partidatan) eta Los Paisanos Limpiezas Ruedako Juan Carlos Loorek gol gutxien izan dituen atezainarena irabazi du (15 gol). Antolatzaileak denboraldi berria prestatzen ari dira eta bi talde gehiagorentzako lekua dutela azaldu dute. Izena eman nahi dutenek, irailaren 15era arteko epea izango dute.

**Ingurumen proposamenak aurkeztu dizkiote
Ermuko ikasleek Udalbatzari**

Urtean zehar egindako lana eta herria hobetzeko euren proposamenak aurkeztu zituzten Ermuko ikasleek, ekainean Ermuko Udalean egin zen Agenda 21 programaren Udalbatzan. Udaleko webgunean irakurri daitekeenez, San Lorenzo, San Pelayo, Ongarai, Anaitasuna eta Eskolabarrri ikastetxeetako 40 ikasle inguru bildu ziren udaletxeko bilkura aretoan, gainerako ikasle guztien ordezkari gisa. Aurtengo gai nagusia biodibertsitatea izan da, eta hori kontuan izanda, Ermuko neska-mutilek udalerria ikertu dute. Egungo egoeraren diagnostikoa egin ostean, adin eta ikastetxe ezberdinetako ikasleek euren ondorioak aurkeztu zituzten, eta mota guztietako proposamenak egin zituzten herriko biodibertsitatea hobetzeko. Udal ordezkariak adi entzun zituzten ikasleen proposamenak, eta banan-banan erantzun zituzten. Gainera, iaz hartutako konpromisoen jarraipena ere egin zen. Egitasmoa aurrera eramateko, ikastetxeek Udalaren, Ingurugelaren eta Debegesaren laguntza jaso dute. *Argazkia: Ermuko Udala.*

**T** XALAPARTA
ABERNAEta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**Erdikokale 13
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK
943 030 299**

Heapaindegia

MT Heapaindegia
C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Móvil. 688819336
facebook. <https://www.facebook.com/heapaindegiamttxuqueria.mt>

Silvia Gastón Izaquirre

Mallabiko eskola-umeok, azken txanpan!

Jai usaineko egunak eta irteerak izan dira azken hiruhileko honetatik ilusio gehien sortu eta gogotsuen bizi izan ditugunak. E, bai, lan mordo bat egin ostean, lagunok!

Eskola txikia izanik, den-denok eta elkarrekin gauza ugari egiteko aukera daukagu. Esaterako, maiatzaren 17an, aniztasun afektibo-sexualaren alde eta homofobiaren kontrako aldarri gisa, irakasle, jantokiko behargin eta ikasleok margotu genuen ostadarra, gure esku guztiak estanpatuz bertan.

Hilabete beranduago, eskuok erabili genituen ere Amnistia Internazionalerako arduradunekin izan genuen topake



tan: 111 paperezko txalupa egitea izan zen, ikasle bakoitzeko bana, eta itsasoa eta eskuak eta eskuak... Europara ailegatu guran dauden errefuxiatuak itotzen eta esku bat nork luzatu zain daudela gogora ekartzeko.

Irteeretan ere, gure estilora, denok nahaste: 4 eta 5 urtekoak Gortizera, 1. eta 2. ziklokoak Sunbillara eta 3.ekoak Nafarroa aldera ere, Lizarrako kanpinera.

Eta azken egunean, azken autobuskada: Debako hondartzara. Langileak bagara, bai eta bista-koa denez, jai zaleak ere!



Bitsi-denda Tailer propioa Edoju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Talde-saiok
Hirugarren adinerako gimnasia
Emakumeen korrikalaritza klubak
Kirol aholkularitza, planifikazioa eta jarraipena



Entrenamendu pertsonalak
Análisi biomekanikoak
Talde bikikiak
Susperaldi funtzionala

Iparragirre 13 Behea (Ermua) • 943177094
e.sporti.cep@gmail.com



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



-%50!!

Atsedendiaz hitz egingo dugu?

Zubiaurre 32 (Ermua)
943 177 041



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

Eskerrik asko Ermuan Bagara zaleoi!!



Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

san pelayo
clínica dental hartz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04


OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12



Oporretan ere, jantzi Ermuan Bagarako kamiseta!! Atera argazki bat eta bidali ermukoeuskaltzaleensarea@gmail.com helbidera.

Egitasmoaren Facebookera igoko ditugu argazki guztiak eta onenak saritxoa jasoko du!



Argazkiak: Xabier Ciarsolo eta Ermuan Bagara.

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

Bobby Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotenzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarbiketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

Torrekua kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

Ermuko gazteak “Festan Blai” ekimenean murgilduko dira

Orain arte ez bezala, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek eurei bereziki zuzendutako ekintza izango dute Santxau jaietan. “Festan Blai”k musika, *photocalla* eta sare sozialak uztartuko ditu, eta euskararen erabilera areagotzea izango du helburu, besteak beste.

Kultur Kabiak elkar-teak eta Antxixiketako begirale taldeak antolatuko dute Ermuko lehen “Festan Blai” jaia, Udalaren babesarekin. Uztailaren 15ean, ostirala, gaueko 22:00etatik 01:00ak arte burutuko da, Martxoak 8 plazan. Markelin DJa musika jartzeaz ardura-

tuko da eta Antxixiketako begiraleek bi mostradore izango dituzte. “Gure begiraleek pegatinak banatuko dituzte parte hartu nahi dutenen artean. Pegatinarik abesti euskaldun baten letraren zati bat agertuko da eta beste zatia daraman gaztearekin elkartu beharko dute saria irabazi nahi badute”, azaldu dute antolatzaileek. Gainera, *photocalla* ere egongo da, eta Instagramera argazkia kigoz gero, bertan ipi-



niko den pantailan ikusi ahal izango dira.

Kultur Kabiak sustatutako ekimen horren helburua da gazteengan euskararekiko motibazioa eta euskararen erabilera sustatzea, horretarako eremu naturala sortuz. Eta horretaz gain, gazteei herriko jaietan leku propioa emateko asmoa ere badu, giro euskaldun eta osasuntsuan jaiez gozatzeko aukera emanez. “Jaietan ez dago DBHko gazteei zuzendutako bestelako ekintzarik —diote Antxixiketako kideek—, eta garrantzitsua iruditzen zaigu horiek ere euren lekua izatea Ermuan euskaraz gozatu ahal izateko”.

Giro paregabea

Dagoeneko Donostian eta Irunen ospatu da “Festan Blai” jaia, eta bi lekuetan arrakasta handia izan du

(YouTuben herri horietako hainbat bideo ikus daitezke). “Giro paregabea sortzen dela ikusi genuenean ez genuen zalantzarik izan: ekimen horrek Ermuan arrakasta izango luke!”, diote Antxixiketako begiraleek. Beraz, aurrera egitea erabaki zuten.

Egunean bertan lau begirale egongo dira “Festan Blai” dinamizatzen, eta Kultur Kabiako kideak izango dituzte alboan muntaian eta dena batzeko orduan. Izan ere, begiraleak lanpetuta ibiliko dira uztailaren 15ean, egun horretan bukatzen baitira udalekuak. Antxixiketaren arabera, gazteei zuzendutako ekimen horrek amaiera bikaina emango die aurtengo udalekuei.



uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia

IZASKUN TXURRUKA
 Goienkale 9 Bajo
 48260 Ermua Bizkaia
 94 317 66 90
 peluqueriaizaskun@gmail.com
 peluqueriaizaskun.wordpress.com

Quetzal
 [arropa, bitxiak, opariak...]
 Goienkale, 9 · 48260 ERMUA | 943170065
 www.quetzalmoda.com [f] [s]

Zure publizitatea:
DROGETEN ITTURRI
 Aldizkarian
 943 179350 / 688 632876
 drogeten@gmail.com

Leire Irazu, Irale Hortz Klinikako zuzendaria:

“Gure pazienteen ongizatea da gure altxorra”

Badira ia 17 urte Irale Hortz Klinikak atek zabaldu zituela. Dentista bakar batekin abiatu zen, baina gaur egun zortzi profesionalak osatzen dute Iraleko lantaldea. Esparru ezberdinetako profesionalekin lan egiteaz gain, euren ezagutzak etengabe berritzen dihardute, eta horri esker, tratamendu aukerarik zabalena eskaintzen du Iralek.

- Zeintzuk dira Iralek eskaintzen dituen azken berrikuntzak?

Alde batetik, prebentzioaren inguruan sortu diren protokolo berriak ekarri ditugu geurera. Kariesari aurre egiteko, esaterako, garbiketaz gain, beste baliabide batzuk gehitu ditugu, bakteriak eraldatzeko eta haginaren materiala sendotzeko. Horrela, urtero kariesak zituztenei, irtenbide berriak ematen dizkiegu. Gainera, kariesa tratatzeko material berriak dauzkagu, nerbioa babesten dutenak, haginaren bizitza luzatuz. Inplanteen alorrean, bestalde, erabiltzen ditugun materialak primerakoak dira. Beraz, hezurrean integratzeko beharrezko denbora murrizten dugu eta hagina arinago jartzen dugu, tratamendua laburragoa eginez.

- Gaur egun ohikoa da implanteak jartzea?

Bai, eta hala ere ezjakintasun handia dago, eta horrek beldurra dakar. Tratamendu kirurgikoa dela daki jendeak, baina kirurgia motaren arabera, oso tratamendu erreza eta eramangarria izan daiteke. Dena den, hantura saihesteko eta zikatrizazioa hobetzeko ezinbesteko tresna daukagu: laserra. Oso lagungarria da arlo ezberdinetan, irtenbide kopurua areagotzen duelako.

- Udari begira, zeintzuk dira gehien eskatzen diren tratamenduak?

Zuriketa esango genuke: haginei bizitasun berria ematen dielako eta irribarre alaiagoak erakusten ditu. Dena dela, gure pazienteen eskaerei edo zalantzei erantzuna emateko gaude Iralen,



eta tratamenduak modu pertsonalizatuan aztertzea da egokiena.

- Dentistaren beldur da oraindik jendea?

Bai, baina konfiantzarekin gaintzen ditugu beldur horiek Iralen: enpatia eta umorea ditugu egunerokotasunean nahi eta nahi ez. Horrek ez du esan nahi lana txantxa dela, baina konturatu gara pazientearekin dugun harremana arina izateak abantailak dituela. Izan ere, gure pazienteen ongizatea da gure altxorra, eta beraiei esker hazi gara.

- Nortzuk osatzen duzue Irale Klinikaren lantaldea?

Zortzi pertsonak osatzen dugu lantaldea, nik neuk, Leire Irazuk, gidatuta. Harrera-lekuan, Idoia eta Pilar daude, hitzorduak kudeatzeko, zalantzak argitzeko zein administrazioaz ardurtzeko. Goiz batean minez esnatuz gero, esaterako,

premiazko hitzordua emanago dizute, lehenbailehen mina kentzeko. Bestalde, Maitte eta Imanol profesional mundialak dira eta, haien ondoan dihardutenak, Eneritz G. eta Eneritz L., laguntzaile paregabeak: Azalpen zehatzak eta ulerterrazak ematen dituzte, eta umeak tratatzeko daukaten trebetasuna ikustekoa da. Sheila higienista da eta bestelako lanetan ere laguntzen du. Azkenik, Guadalupe Oteiza ortodontista eta Fernando Esnal aho-masail zirujaua ere ondoan ditugu.

- Lantalde bikaina duzue, beraz.

Bai, eta betikoan dihardugu Iralen: gure lana hobetzen pazienteei onena eskaintzeko. Horregatik, gure pazienteei eskerrak eman nahi dizkiegu eta aldi berean, ezagutzen ez gaituztenen jakin-mina piztu. Laster bertan elkar ikusiko dugula koan... zatoz ezagutzera!



JOSE "CHE" SUAREZ

- Non ikasi zenuen?

OHoko 3. mailara arte, Teodoro Zuazuan. Orduan Eibarrera joan behar izan nuen osaba-izekorekin, eta Begoñako aman ikasi nuen, BBBko 1. mailara arte.

- Zure lehen lana?

13 urterekin, ikasten nuen bitartean, Eibarko inprenta batean hasi nintzen. Gero, zerbitzari ibili nintzen Paco tabernan.

- Zenbat urte igeltsero?

20 urterekin hasi nintzen. Hainbat enpresatan aritu ostean, nire kontura lan egitea erabaki nuen duela 20 urte, bazkide batekin.

- Noiz murgildu zinen musikaren munduan?

Duela hamarkada bat. Ekipo txikia nuen eta koadrilarekin landetxetara joaten ginenean, giroa alaitzen nuen. Koadrilako batek bere kintobazkarira joateko gonbitea egin zidan eta primeran pasatu zuten. 1967ko kintoek deskubritu ninduten eta ordutik lanez gainezka nago!

- Zein ekitalditan aritzen zara DJ?

Kinto-bazkari eta afarietan, ezkontzetan, laneko agur-bazkarietan... Jatetxe askotatik deitzen didate.

- Zerk bereizten zaitu DJ moduan?

Uste dut jendea animatzeko gai naizela, zirikatzailea naiz, eta jendeak lotsa alde batera uztea lortzen dut. Nik neuk ondo pasatzen dut, eta hori transmititu egiten da.

- Zein da musikarik arrakastatsuena?



Gasteizen jaio zen duela 50 urte, eta 48 daramatza Ermuan. Gurasoak galziarrak ziren. Hiru anai-arreben artean erdikoa da. Crisekin ezkontuta dago eta 20 urteko alaba dute, Lorea. Igeltseroa ofizioz, DJa afizioz. Gizon positiboa, lotsagabekoa eta berritsua.

Jendea gehien mugiarazten duena, zalantzarik gabe, rocka da. Eta lehengo rocka oraingoa baino askoz hobea da: ACDC izugarria da!

- Musikan lehenago hasi ez izanaren pena duzu?

Bai, nagusi harrapatu nau. - Egunean egotea ezinbestekoa izango da. Noiz entzuten duzu musika?

Gauetz, 23:30-00:00etatik aurrera, 2:00 edo 3:00ak arte. Eta hurrengo egunean 6:30ean jaikitzen naiz!

- Familiarentzako betarik?

Bai, gustukoa egiten duzunean, gauza guztietarako

denbora atera dezakezu.

- Zenbat urte daramatzazu emaztearekin?

Bizitza guztia: 16 urterekin elkarrekin irteten hasi ginen, 25ekin ezkondu eta 30ekin Lorea alaba izan genuen.

- Zure bizitzan zerbait aldatuko zenuke?

Gauza asko, seguru. Cris eta Lorea ez, ezta pentsatu ere. Zoragarriak dira biak!

- Jendez inguratuta zaude beti?

Bai, koadrila handia dut eta lagun artean egotea asko estimatzen dut.

- Bertuterik?

Nire lagun oso laguna naizela.

- Akatsik?

Badituzte, baina ez dizkizut aitortuko!

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Marmartiek eta gai batez jakin barik hitz egiten dutenek.

- Zerk eragiten dizu barrea?

Nire lagunak. Gainera, neure buruaz barre egiten dut eta besteek ere barre egitera animatzen ditut.

- Positiboa zara?

Bai, eta ez dut nahi jende negatiboa nire inguruan. Segituan antzematen ditut.

- Zer irakatsi dizu bizitzak?

Ez duela merezi haserretzea, eztabaidatzea, eta garrantzirik ez duten gauzei garrantzia ematea. Bizitzaz disfrutatu behar da eta zorionsua izan.

- Zure egunik zorionsuena?

Asko ditut, baina bat aipatzekotan, nire ezkontza eguna. Eta nire despedida, oso ondo pasatu nuen!

- Biziorik?

Tabakoa. Ez dut lagatzeko saiakerarik inoiz egin.

- Zure burua apaintzea gustatzen zaizu?

Bai, apur bat bai.

- Memoria ona duzu?

Bai, fina.

- Teknologia berriekin ondo moldatzen zara?

Bai, zerotik hasi eta gauza ikaragarriak egin ditzaket.

Dorleta Vidal

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Laura Prieto, futbolaria lotutako bizitza

Laura Prieto ermuarra gazte hasi zen futbolararen munduan. Gaur egun 19 urte ditu eta, lesio gogor baten ondorioz, aurten ezin izan du jokatu. Hala ere, entrenatzaile gisa aritu da Eibar taldean.

Ez du gogoan, baina 9 edo 10 urterekin Ongarai eskolako taldean jokatzeko hasi zen. Zelai berdean aritzen hasieran eta bere lehen entrenatzaileak Mikel "Mandi" eta Jon izan ziren. Garai onak oroitzen ditu.

Nagusitu ahala Ermuan ez zen neska talderik sortu, beraz Eibarrera jaitsi zen gustuko zuena egiten jarraitzerara. Hasieran La Sallen, Urkira sartu aurreko pausoa, Isaac González entrenatzailea-

rekin (11 edo 12 urte izango zituen orduan). Hortik aurrera Urki taldean, eta bukatzeko Eibar taldera igaro zen.

Beste kirol batzuk ere probatu izan ditu. Atletismoan ibilitakoa da, esaterako, nahiz eta esperientzia onik ez izan: Lehenengo lasterketan orkatila bihurtu eta erretiratu behar izan zen. Hasiera ona bai, bai...!

Gainera, lagunak hementxoak ditu, baina kanpoan lagun asko dituela ere aipa-



Laura Prieto

Laura Prieto, zutik, erdian, bere taldekideekin.

tzen du, Zaragozan adibidez. Horregatik, agian, Gizarte Integrazioa modulua ikasten ari da Bilbon, eta datorren urtean hori bukatzen duenean, Terapia Okupazioala gradua egiteko asmoa du, Zaragozan behar bada.

Etorkizunera begira

Egun, etorkizuna urrutitikusten du, eta egunerokoa bizitzea nahiago du. Atzera begiratzean, aldiz, baditu oroitzapen onak futboleant lagun berriak egin baititu ur-

te askotan, talde askotan ibilia da eta 2. mailan jarduteko aukera ere izan du. Alde txarra ere badu: lesioa.

Berau gogorra izan da Laurarentzat. Hasieran mingarria izan zen, eta bursitisa eta tendinitisa zituela esan zioten. Izan ere, infiltrazioen bat egin diote jada hantura jaitsi dadin.

Dena den, zelaira bueltatzeko gogotsu dago, eta aurrerago itzuliko delakoan dago, lesio horrek bi urtera-ko geldialdia ekarri baitio.

Armaia Arginzoniz



Ramón Beitia

Ramón Beitia



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44



MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea
☎ 943 17 18 50

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek

electricitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Ongi etorri errefuxiatuak

Ongi etorri. Berba bi horiek ezin hobeak ditugu beren sorterritik indarrez kanporatuta izan diren pertsonei gure sentimendua adierazteko. Ongi etorri adierazten du prest gaudela haiek hartzeko, haiekin partekatu nahi dugula, lasaitasuna eskaini... Ongi etorri, etortzen direnak gure herriaren zatitza hartzen ditugulako, halakoxea baitugu herria: anitza. Ongi etorri, uste dugulako pertsonek, datozen tokitik datozela, beti eduki behar dituztela dagozkien esku-bideak. Hain zuzen ere, horregatik, pertsonak direlako.

Ongi etorri herriaren erantzuna da, EBeko gobernuak ematen dutenaren guztiz kontrakoak. Bizirauteko hartu duten bidea ixteko hesiak altxatu dituzte. Akordioak sinatu Turkia edo Marokorekin, haur errefuxiatuak itsas

erdian hil daitezene, eta ez gure hondartzetan. Milaka milioi euro gobernu diktatorial eta genozidentzat, ez ikusteko errefuxiatuen ilarak Europako erdigunean, ez dadin Idomenirik izan EBaren barruan, baizik eta giza zabortegeak inork ikusten ez duen beste kontinenteren bateko auskalo zein lekutan.

Bien bitartean, beharrezkoa den diru guztia eta gehiago xahutzen dute Egeo eta Mediterranea militarizatzen, haien Frontex eta NATOrekin. Europako eta nazioarteko arautegiak bortxatzen dituzte, gerratik edo jazarpenetik ihes egiten dutenei babesa ematera behartzen dituzten legeak urratuz.

Badakigu Ekialde Ertaineko errefuxiatuak ez direla bizitzen jarraitzeko asmoz, Europara datozen bakarrak. Gure ongi etorria bada, era berean, gatazka



*Juanxo Diez
Ermuko Nazioarteko Elkartasun
eta Lanbidetza Kontseiluko kidea*

ahaztuak deritzenetatik iheska dabilzanentzat (Eritrea, Mali edo Nigeriako iheslarientzat, kasu). Bai eta errefuxiatu sahararentzat ere, aspalditik Ermuan hartu ohi ditugun horientzat. Ongi etorri hau geuk eragindako miseriatik ihes egiten dutenentzat ere bada. Bost mendez konkistatuak eta kolonizatuak izan ostean pobrezian bizitzera kondenatu ditugun horientzat. Oraindik ere odola xurgatzen diegun horientzat. Elkartasun-sentimendu bera da guztiei eskaintzen dieguna.

Ongi etorri errefuxiatuak. Balkoietan zintzilikatu dugun bandera hau, orain iristen direnei eman nahi diegun besarkada da.

“ *Balkoietan zintzilikatu dugun bandera, orain iristen direnei eman nahi diegun besarkada da* ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. © 648 64 37 15

SALMENTA

Aparkaleku itxi bikoitza saltzen dut San Pelayon (Dia supermerkatuaren azpian). -2 solairua. © 649 621 866 edo 670 861 775.



Ekainaren 19an Zorionak amama, aitxitxa eta osaba Alexen partez. Musu eta besarkada handi bat!



Ekainaren 17an Zorionak Aner zure 9. urtebetetzean, aitite-amama, izeko-osaba eta, bereziki Ane eta Irama lehengusinen partez.



Uztailaren 3an Zorionak aita-txi!!! Zu bai zu... Beti gazte!! Muxu assssko Luka, Samu eta amaxoren partez.



Uztailaren 18an Zorionak Unai, zure osaba-izeko eta Aimar lehengusuaren partez. Musu handi bat, txapeldun!



Ekinaren 15ean Zorionak Aiiala zure 5. urtebetetzean. Ondo pasa zure eguna eta musu asko amaxo, aitatxo eta Lukenen partez.



Uztailaren 3an (aita) eta 4an (Aimar) Zorionak aita eta Aimar, zelako arin igaroden gure bizitzako urterik onena! Askomaite zaituztet. Musutxo asko.



Ekainaren 27an Zorionak Hodei zure 2. urtebetetzean. Aner, aita eta amaren partez!!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com
Azken eguna: uztailaren 11.

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Caperos
Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

URRETA burdindenda
* Etxea * Giltzak
* Tresneria * Sarrailagintza
* Brikolajea * Kit altzariak
* Enrailak
Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**MALLABIA
1967**

Argazki hau Berrizko Merzedeko konbentuan aterata dago, 1967ko ekainean.

Rosa Mari monja egiteko botoak egin zituenekoa da, eta bertan Amestiko familiarekin agertzen da.

Rosa Mari Guerenabarrenarekin batera daude Mertxe eta Carmelo Guerenabarrena, Justa Longarte, eta Martín, Jose, Sebastian, Jesús, Javier, Balendín, Josune eta Lourdes Guerenabarrena.

**ERMUA
1982**

Egunotan 40 urte bete dira lagunuen arteko Urdiñak Elkarte zabaldu zela, nahiz eta argazki hau urteak beranduagokoa izan. Balerioneko terrazan erretratatuta, ezkerretik eskumara eta tente: Santi Totorika, Iñaki Ugalde, Juan Luis Araiztegi, Fermin Urreta, Bixente Ibaibarriaga, Juan Jesus Arrizabalaga, Rafa Avalos, Sabin Agirregomezkorta, Roberto Pagaldai

“Maderas”, Alberto Saenz “Baturro”, Rafa Totorika, Jose Manuel Cid, Andres Saenz “Baturro”, Agustin Berrizbeitia “Malengo”, Jesus Izarra eta Juan Mari Zendoia “Turi”. Makurtuta: Juan Mari Urreta “Zartaras”, Juan Mari Abarrategi “Errota”, Javier Areitio, Jose Angel Ziarsolo, Felix Unanue, Javi Lejardi “Etxarte”, Kepa Elejondo, Jose Antonio Unanue “Txanga”, Javi San Ildefonso, Miguel Fernández “Mitxeloto” eta Roberto San Ildefonso.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Gazteentzako lokalak ugarituz doaz azken urteetan. 2012an 33 lokal zeuden Ermuan, Udalaren arabera, eta haien segurtasuna bermatu nahian, arautegia ezarri zuen 2005ean (itxiera ordua, komunaren gutxienera, hormen egoera...).

**Lokala daukazu? Uste duzu lokalak seguruak direla?
Arautegia ezagutzen duzu?
Badute gazteek beste aukerarik?**



Gaur egun 13-14 urteko gazteek lokalak dituzte, eta ez dut uste burmuina garatuta daukatenik horrelako leku batean bakarrik egoteko. Aldi berean ez dut gaizki ikusten, ez dutelako beste aukerarik. Badakit arautegi bat dagoela, eta izan ere, gure lokalera udaltzainak etorri ziren behin paperak eskatzera.

Oihana González, 22 urte



Hiru lokal ezberdin izan ditut jada, zaratagatik kaleratu baikintuzten aurrekoetatik. Ez dakit lokal horiek seguruak diren, bakoitzak ematen dion erabileraren arabera da. Arautegia badago, eta adin txikikoek gurasoen sinadura behar dugu, esaterako. Baina beste aukera kalean egotea da, besterik ez.

Eider González, 17 urte



Duela 4 urte daukat lokala eta batzuetan pentsatzen dut seguru nagoela bertan, eta beste batzuetan ezetz. Badakit arautegi bat dagoela, baina zorrotza da eta ez diogu kasu handirik egiten. Beste herrietan bezala, gaztetxea aukera ona litzateke; behintzat Izarra zabaldu dute eta ikasi eta hitz egiteko leku polita da.

Andoni Santamaria, 19 urte



Orain ez daukat lokalik, baina izan dut. Horregatik, badakit arautegia dagoela, baina ez dakit zer agintzen duen. Uste dut gazteak antolatu beharko liratekeela, beste aukera batzuk landu, euren beharrrak era kolektiboan asetzeko, eta ez bakarrik koardilakoekin.

Iker Ganuza, 26 urte

Tasio eta Sabino



- Udaletik gure egiten dugu gazteen lokalen segurtasunaren gaineko herriaren kezka eta ari gara...



- Hau ez da, hain zuzen ere, kezkatzen gaituen segurtasuna ba!

Uztailak 14. Osteguna

- 18:00. SELFIE LEHIAKETA.

- 18:00. Lobianon, "Walking Afrika. Beste errealitate bat ezagutzen" ARGAZKI ERAKUSKETA (hilaren 24ra arte).

- 19:00. Plazan, TXARAN-GEN ARTEKO JOKOAK:

Harra + jatorrizko bekatua.

- 19:00. Lobianon, ZINE FORUMa: "Dévoir de mémoire".

- 22:30. BERTSO JAIALDIA Martxoak 8 plazan: Maider Arregi, Beñat Ugartetxea, Oihana Guaran, Jone Larrinaga, Egoitz Gorosterrazu eta Aitor Servier. Gai jartzailea: Unai Rodriguez.

Uztailak 15. Ostirala

- 19:00. Plazan, TXARAN-GEN ARTEKO JOKOAK:

sokatira + artaburu proba.

- 22:00. Martxoak 8 plazan, FESTAN BLAI.

Uztailak 16. Larunbata

- 8:00. Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, TXAKURREN ERAKUSTALDHEHIAKETA.

- 10:00. Plazatik URKO ó9etan ezetz! VIII. IGOERA KONTROLATUA.

- 10:00. Plazako pilotalekuan, ARKU-TIRO PROBA.

Nahi duen guztiari zabalik.

- 11:00. Lobianon, MAHAL eta ESTRATEGIAREN JOKOAK.

- 11:00. Plazan, ALDIBEREKO XAKE PARTIDAK, nahi

duen guztiari zabalik.

- 12:00. Aretio etorbideko gunean, ERMUA HIRIKO V. SLOTRALLY.

- 13:00. Plazan, Allarizeko Udal Musika Bandaren KONTZERTUA.

- 14:00. Martxoak 8 plazan, EMAKUMEEN ARTEKO BAZKARIA, Jaopo Lyguez taldearekin.

- 19:00. Plazan, KONTZERTUA Afrikan Bakh Yay taldearen eskutik.

- 23:30. San Pelaion, KONTZERTUA: Efecto Pasillo.

Uztailak 17. Igandea.

- 9:30. MENDIBIZIKLETAKO XXI. HERRI MARTXA plazatik.

- 10:00. San Martin plazan, BLOOD-BOWL TXAPELKETA.

- 10:30ean, San Pelaio plazan, IRRATIZ KONTROLATURIKO KOTXEEN 'ERMUA HIRIA' XIX. TXAPELKETA.

- 11:00. SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA, Hanbreko industrialdean.

- 19:00. Plazan MUSIKA eta DANTZA JAIALDIA, Alba Regia eta Bafote taldeak.

Uztailak 18. Astelehena.

- 19:00. Plazan, TXARAN-GEN ARTEKO JOKOAK: triatloi eta luzokerra probak.

- 22:30. Martxoak 8 plazan, KONTZERTUA "Los zingaros".

Uztailak 19. Asteartea.

- 19:00. Plazan, TXARAN-GEN ARTEKO JOKOAK: sokatiraren finala eta kuboak.

- 22:30. Martxoak 8 plazan, "Bidaiabizitzen" KALE IKUSKIZUNA.

Uztailak 20. Asteazkena

- 19:00. Plazan, SELFIE LEHIAKETAREN SARI BANAKETA eta DANTZA ERAKUSTALDIA.

- 21:00. Plazan, HERRI OGITARTEKADA

- 22:30. Plazan TXARAN-GEN ABESTI - LEHIAKETA.

Lehiaketatik kanpo lullitxa txar-rangak joko du.

Uztailak 21. Osteguna.**Umeen eguna**

- 10:30ean BURUHANDIAK plazan.

- 11:00/13:00 eta 16:00/19:00, plazan, HAURRENTZAKO PARKEA eta TAILERRAK

- 17:00. UMEENTZAKO TXOKOLATEJANA plazan

- 18:00, Udal kiroldegian ARETO-FUTBOL TXAPELKETA

- 19:00, plazan "Buala" HAURRENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA.

- 20:30. APARJAIJA plazan.

- 22:30. Folk-blues KONTZERTUA Bakelite taldearen eskutik Martxoak 8 plazan.

Uztailak 22. Ostirala

- 18:00. Udal kiroldegian ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.

- 18:00. Plazako pilotalekuan, PALETA TXAPELKETA-REN FINALAK.

- 22:30. Plazan PLAYBACK LEHIAKETA.

Uztailak 23. Larunbata.

- 9:00. Kiroldegian, ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.

- 16:00. San Pelaio Bolatokian BOLO-PALMAKO SANTIXAUAK 2016 SARIA, banakako arloan.

- 16:30. Plazan XIV. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA.

- 17:00. San Pelaio Bolatokian BOLO-PALMAKO SANTIXAUAK 2016 SARIA

- 19:00. Plazan, DANTZA EMANALDIA Txindurri.

- 23:30. San Pelaion, Esne beltzaren KONTZERTUA.

BESTELAKOAK**- Hilak 2: Elektrojaia:**

Musika elektronikoaren jaialdia. 15:00etatik 2:00etara. San Pelaio plazan.

- Hilaren 4tik 14ra:

Argazki erakusketa: "Dakarren bizitzen". Lobianon.

- Hilaren 7tik 10era:

Sallabenteko jaiak: hainbat ekitaldi.


- Hilak 9:

Gazte eguna. Hainbat ekitaldi. Plazan.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko



PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



ALBOKOA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala

- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Tikitritxa
- Tronboia
- Tronpetea
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Akerlei
hizkuntzak

Try life in another language!

Children



Teenagers



Adults



Companies



Matrikula zabalik

2016-2017
ikasturtea

Hizkuntzak denontzat, informatu eta
bilatu gustuko ikastaroa!

Lagun bat ekartzen baduzu hileroko
baten erdia ordainduko duzu

→ %50

Baliokito promozioa inaktibo 3ra arte. Lagun bat ekartzen baduzu deskontua ekainean egongo da. 2 lagun ekartze gero
maitatzen eta ekainean. 3 lagun ekartze gero aurreratu, maitatzen eta ekainean. Promozio hau ezin da pila.



TELEFONOA: 943 17 66 32

BIZKAIA ETORBIDEA, 5

Ugaro


aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

GREMIOEN

GIDA



ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Kalefakzioa
- Instalazioak
- Gaueko tarifa
- Erreformak
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ITURGINTZA

ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

LUIS VALLE

Valle

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

DEKORAZIOA

OBREN KOORDINAZIOA • MARIAN CABRACEDO DEKORATZAILEA

dekorazio estudioa

trastévere

barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina • Zaharkalea, 36, 3^a 48200 Ermua -Bikala-

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoa
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com